

# Egin behar dugu

# Tenemos que hacerlo

## Transición energética y Arte

## Artea eta trantsizio ekologikoa

**Título / Izenburua**
*EGIN BEHAR DUGU/TENEMOS QUE HACERLO. Transición energética y Arte. Arte eta trantsizio ekologikoa*

**Lugar de exposición / Erakusketa lekua**
*Palacio Horcasitas, Martin Mendia Kalea, 14, 48800 Balmaseda, Bizkaia*

**Organizan / Antolatzaileak**
*ARTEKOM, Enkartur*

**Patrocinado por / Babesleak**
*Ayto. Balmaseda y D.F.B. (Departamento de cultura) / Balmasedako Udala eta B.F.A. (Kultura saila)*

**Coordinadores / Koordinatzaileak**
*José María Herrera*
*Susana Jodra*
*Carmen Marín*

**Colaboradores / Laguntzaileak**
*CBL*
*UPV/EHU*
*TRADENER Proiektua*

**Diseño y Maquetación / Diseinua eta maketazioa**
*Iratxe Díaz Saratxaga*
*Susana Jodra*
*Maitane Arri*

**Diseño de portada / Azalaren diseinua**
*Antón Arana*

**Comunicación y difusión / Komunikazioa eta hedatzea**
*Martin Mantxo*

**Imprenta y depósito legal / Inprenta eta lege-gordailua**

**ISBN** 978-84-09-15852-2

*Egin behar dugu.*
*Tenemos que hacerlo.*

**Del 6 de noviembre al 10 de diciembre de 2019**

**2019ko azaroaren 6tik abenduaren 10era**

## PRESENTACIÓN

La exposición *TENEMOS QUE HACERLO* se realiza dentro del Programa Campus Bizia Lab (CBL) 2018/2019 que desarrolla la Dirección de Sostenibilidad del Vicerrectorado de Innovación, Compromiso Social y Acción Cultural de la Universidad del País Vasco, UPV/EHU.

Ha sido organizada por el equipo multidisciplinar del proyecto ARTEKOM. Arte y comunicación para la transición energética, del que forman parte trabajadores de la administración y servicios, estudiantes y profesorado de las Facultades de Bellas Artes, Ciencias Sociales y de la Comunicación y Farmacia (Ciencias Ambientales), como parte del compromiso para desarrollar estrategias de comunicación y sensibilización en el campus de Bizkaia, UPV/EHU.

En su realización han participado artistas de las Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU, de la Universidad Politécnica de Valencia, de la Universidad Autónoma Metropolitana de México y de la Universidad Antonio Nebrija, con el apoyo del Ayuntamiento de Balmaseda, Enkartur y TRADENER proiektua.

## AURKEZPENA

EGIN BEHAR DUGU erakusketa UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitatearen Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzak garatzen duen Campus Bizia Lab (CBL) 2018/2019 egitasmoaren baitan gauzatu da.

Erakusketaren antolatzailea ARTEKOM. Trantsizio energetikorako artea eta komunikazioa proiektuaren diziplinarteko lantaldea izan da. Bertan, Arte Ederretako, Gizarte Zientzia eta Komunikazioko eta Farmaziako (Ingurumen Zientzietako) fakultateetako administrazio eta zerbitzuetako langileek, ikasleek eta irakasleek parte hartzen dute, UPV/EHUren Bizkaiko campusean komunikazio eta sentsibilizazio estrategiak garatzeko konpromisoari ekiteko xedez.

Hainbat artistak parte hartu dute erakusketa gauzatzen: UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatekoek, Valentziako Unibertsitate Politeknikokoek, Mexikoko Unibertsitate Autonomo Metropolitarrekoek eta Antonio Nebrija Unibertsitatekoek. Erakusketak Balmasedako Udalaren, Enkarturren eta TRADENER proiektuaren laguntza izan du.

# EXPOSICIÓN *EGIN BEHAR DUGU*

## *ARTE Y COMUNICACIÓN EN LA TRANSICIÓN HACIA SOCIEDADES SOSTENIBLES*

"¿Qué tiene que ver el arte con la sostenibilidad?" Esta pregunta la planteó hace unos meses un grupo de estudiantes que participaban en una Jornada del Programa Campus Bizia Lab (CBL) que aborda los retos de la Sostenibilidad en el ámbito universitario. La cuestión puede sorprender a muchos, pero pone en evidencia que aún es preponderante la visión de la realidad en la que diferenciamos, de una parte, lo que atañe a lo humano/sociedad-cultura y, de otra, a lo no-humano/naturaleza.

Esta concepción, propia de las sociedades occidentales, tiene su origen en la Época Clásica, y ha marcado históricamente tanto las relaciones y actitudes del ser humano con el entorno biofísico, como las relaciones que los individuos y las sociedades mantienen entre sí. Se da por sentada la existencia de una naturaleza, que en el imaginario de nuestra cultura adopta muchas formas diferentes, sin embargo se entiende como externa y desvinculada de los sistemas sociales y económicos. La cosmovisión dual y jerarquizada ha servido, en primer lugar, para asentar, justificar y poner en práctica los anhelos de dominación de su entorno por parte del hombre y, en el mismo proceso, las construcciones culturales a las que ha dado pie han sustentado el establecimiento de jerarquías de poder entre la población humana.

Hoy en día, inmersos como estamos en una crisis global sin precedentes, tenemos conciencia de que esta visión no da cuenta de la práctica efectiva de la realidad. Frente a ella, hace décadas que viene demostrándose empíricamente que los grandes problemas ambientales−degradación de los ecosistemas, escasez en recursos materiales y disponibilidad de la energía, cambio climático, pérdida de la diversidad− no son problemas de la naturaleza, son problemas humanos. A ellos se añade el paulatino agotamiento de los combustibles fósiles, que invalida los modelos actuales de desarrollo basados en el crecimiento, dibujando un panorama crítico que coloca a la humanidad en una encrucijada inédita; en este punto, la dirección más deseable es la que marca una transición hacia sociedades sostenibles basada en valores como la equidad en la distribución de riqueza y cultura, la igualdad y la paz.

A juicio de los expertos, para este nuevo rumbo contamos ya con la base tecno-científica indispensable, por tanto, solo queda desarrollar la voluntad de asumir los retos y el necesario cambio de comportamientos individuales que conlleva. Al respecto, se ha observado largamente que la información no basta para impulsarnos a transformar nuestros hábitos, sino que es necesaria una renovación de los paradigmas de pensamiento que haga hincapié en la dimensión cultural de la crisis medioambiental, en la interdependencia entre naturaleza y cultura. Y para ello, entre otras herramientas, contamos con la aportación al conocimiento sensible que genera el arte.

Todas las representaciones culturales son producto de un entramado estructural que condiciona la manera en que los individuos y las sociedades interpretan y aprehenden la realidad, y en el que la creatividad artística tiene un papel muy significativo: las imágenes y las palabras, el nivel simbólico, median en la construcción del pensamiento, nos sirven para interpretar nuestras percepciones del mundo y para acomodarlo a nuestras necesidades y a nuestros deseos. El arte, por tanto, está vinculado con el conocimiento, con las políticas y con el posicionamiento ético de nuestra sociedad.

Por otra parte, las mujeres y hombres que han ido ensanchando el significado de lo artístico, han sido y son personas imbuidas en sus contextos y, como tales, partícipes de las corrientes de pensamiento y de acción que los mueven. Si en la década de los sesenta del pasado siglo desde los territorios del conocimiento y los movimientos sociales surgieron las primeras voces de alarma sobre el deterioro medioambiental, en esos mismos años irrumpían las primeras manifestaciones artísticas que plasmaban aquellas preocupaciones. Reconocidas figuras como Joseph Beuys o Hans Haacke han sido fundamentales para introducir la ecología en los discursos estéticos, y han abierto caminos para propiciar, desde el campo del arte, el cuestionamiento de las visiones convencionales que posibilitan el modelo socioeconómico dominante que nos ha traído hasta aquí.

En la grave disyuntiva que la humanidad debe afrontar, el equipo multidisciplinar del proyecto CBL-ARTEKOM reconocemos la eficacia expresiva, la condición y el valor antropológico y social de las actividades y realizaciones artísticas para repensar la realidad y proyectar escenarios posibles y deseables, para potenciar una cosmovisión alternativa que favorezca el desarrollo de sociedades más equilibradas y justas en el futuro. Desde esta perspectiva, y frente a la emergencia de distopías desesperanzadoras, organizamos la exposición EGIN BEHAR DUGU, que nace con vocación propositiva.

La muestra aborda la temática de la transición energética sostenible. En la vertiente conceptual, se exploran las nociones relacionadas desde distintas perspectivas, partiendo siempre de un posicionamiento crítico hacia los modelos de política económica y los valores establecidos por la sociedad de consumo contemporánea.

En cuanto a los aspectos de materialización formal, se ha planteado como premisa operar desde la ubicación virtual en uno de los escenarios de futuro previsibles: un planeta cuya energía disponible será significativamente inferior a la actual. El objetivo ha sido mostrar (mostrarnos) que es posible la producción creativa cultural sin participar del derroche actual, al menos en el campo del arte.

Las/os artistas que participan han aceptado este reto de hacer ecológicamente; operando desde la responsa-

bilidad y la autolimitación, han intentado minimizar el gasto de energía siempre que ha sido posible: trabajando a la luz del día, usando sus manos en vez de herramientas que consumen electricidad, recurriendo a procedimientos tradicionales que dejan menos huella ecológica, empleando recursos locales o reutilizando materiales usados… Las posibilidades que se han puesto en acción han sido variadas en función de las técnicas, formatos y procesos involucrados en cada pieza.

Así pues, con esta propuesta expositiva se invita, también, a una reflexión acerca de la capacidad expresiva de la acción artística como herramienta para concienciar, sensibilizar y comunicar la exigencia de adoptar nuevos hábitos de comportamiento; asumiendo que en las artes visuales el vehículo para el mensaje adopta infinitas formas, y como tal, no tiene necesariamente que ser narrativo, ni siquiera alegórico o metafórico, puede ser simplemente ejemplar: actuar con coherencia.

El resultado es heterogéneo, como no puede ser de otra manera en una exposición colectiva, pero todos los proyectos tienen en común que no se quedan en una experiencia estética contemplativa, sino que ayudan a generar conocimiento y conciencia en la audiencia, a activar respuestas ante la emergencia socioambiental.

**Carmen Marín Ruiz**
Coordinadora del Proyecto ARTEKOM. Arte y comunicación para la transición energética.

## EGIN BEHAR DUGU.
## *ARTEA ETA KOMUNIKAZIOA GIZARTE IRAUNKORRETARAKO TRANTSIZIOAN ERAKUSKETA*

“Zer zerikusi dute arteak eta iraunkortasunak?”. Horixe izan zen duela hilabete batzuk iraunkortasunak dakartzan erronkak unibertsitatearen esparruan lantzen dituen Campus Bizia Lab (CBL) egitasmoaren jardunaldi batean ikasle batzuek egin zuten galdera. Gaia harrigarria izan daiteke askorentzat. Baina, berez, gizatiar/gizarte-kultura eta ez-gizatiar/natura bereizten dituen errealitatearen ikuskera oraindik ere nagusi dela adierazten duen beste sintoma bat baino ez zen izan.

Izatez mendebaldeko gizarteetako ikuskera den horrek Aro Klasikoan du jatorria, eta gizakiek ingurune biofisikoarekin historia osoan izan dituzten hartu-emanak eta jarrerak baldintzatu ditu, bai eta norbanakoek eta gizarteek elkarren artean izan dituztenak ere. Natura delakoaren existentzia gauza ziurtzat jo da. Gure kulturaren iruditerian, forma anitz hartzen ditu naturak, baina beti ulertzen da kanpoko zerbait gisa, sistema sozial eta ekonomikoetatik at dagoen zerbait balitz bezala. Gizakiek ingurunea menperatzeko nahiak finkatzeko, justifikatzeko eta gauzatzeko balio izan du kosmobisio dual eta hierarkizatu horrek; baina, prozesu beraren baitan, gizakien artean hierarkiak ezartzeko funts gisa ere funtzionatu dute kosmobisio horretatik eratorritako kultura-eraikuntzek.

Inoiz ez bezalako krisi globalean murgilduta gauden honetan, jabetuta gaude ikuspegi horrek ez duela errealitatearen praktika efektiboaren berri ematen. Hainbat hamarkadatan enpirikoki egiaztatuz joan gara ingurumen arazo handiak –ekosistemen narriadura, baliabide materialen eta energia-eskuragarritasunaren eskasia, klima-aldaketa, aniztasunaren galera– ez direla naturaren arazoak, giza arazoak baizik. Hori gutxi balitz bezala, erregai fosilak agortzen ari dira, eta hazkundean oinarrituta dauden egungo ereduen baliagarritasuna hutsaren hurrengo uzten du horrek. Hartara, gizateria inoiz ez bezalako bidegurutzean kokatzen duen panorama kritikoa azaleratu egiten da. Puntu honetara iritsita, noranzko desiragarriena gizarte iraunkorretarako trantsiziora doana da, ekitatea, aberastasunaren banaketa, kultura, berdintasuna eta bakea oinarri dituen jendarte batera bideratzen dena.

Adituen iritziz, bide berri horri ekiteko ezinbesteko oinarri teknozientifikoa dugu dagoeneko. Beraz, erronkak norberaren gain hartzeko eta, horrekin batera, norbanakoen jokaeretan beharrezkoak diren aldaketak egiteko borondatea garatzea baino ez zaigu falta. Horren haritik, aspalditik ikusi izan da informazioa ez dela nahikoa gure azturak eraldarazteko; aldiz, beharrezkoa da ingurumen-krisiaren dimentsio kulturala eta naturaren eta kulturaren arteko interdependentzia azpimarratuko dituzten pentsamendu-paradigmak berriztea. Eta, horretarako, beste lanabes batzuez aparte, arteak eragiten duen ezagutza sentikorra darabilgu.

Norbanakoek eta jendarteek errealitatea interpretatzeko eta atzitzeko duten modua baldintzatzen duen

sare estruktural baten emaitza dira kultura-adierazpenak, eta eginkizun esanguratsua du sormen artistikoak hor: irudiak eta hitzak, mundu sinbolikoa, horiek guztiek pentsamenduaren sorkuntzan bitartekari agertzen dira, munduaz ditugun pertzepzioak interpretatzeko baliagarri zaizkigu, bai eta mundua gure beharrizan eta desioetara egokitzeko ere. Artea, beraz, gure jendartearen ezagutzarekin, politikekin eta jarrera-hartze etikoarekin lotuta dago.

Egintza artistikoaren esanahia zabalduz joan diren ekintza-mota desberdinen protagonista izan diren emakumeak eta gizonak egokitu zaizkien testuinguruetan sartuta daude eta egon dira, eta, horrenbestez, testuinguruok higiarazten dituzten pentsamendu- eta ekintza-korronteen jakitun izan dira. 1960ko hamarkadan ingurumenaren narriadurari buruzko alarmak piztu ziren ezagutzen eta gizarte-mugimenduen esparruetatik; urte haiexetan artearen arloan kezka haiek islatzen zituzten arte-adierazpenak agertu ziren. Joseph Beuys edo Hans Haacke bezalako figura ospetsuak ezinbestekoak izan dira diskurtso estetikoetan ekologia txertatzeko, eta bideak ireki egin dituzte nagusi den eredu sozioekonomikoa ahalbidetzen duten ikuskera konbentzionalak artearen alorretik ezbaian jartzeko.

Gizadiak aurrez aurre duen bidegurutze larri horren baitan, CBL ARTEKOM dizipinarteko taldean aitortu egiten dugu egintza eta jarduera artistikoek adierazteko eraginkortasuna dutela, eta izaera eta balio antropologiko eta sozialak ere badituztela, errealitatea beste nonbaitetik pentsatzeko eta etorkizunean jendarte orekatu eta bidezkoagoen kosmobisio alternatiboa aldeztuko duten egoera posible eta desiragarriak proiektatzeko. Ikuspegi horretatik eta itxaropena zapuzten duten distopiak azaleratzen ari diren garai honetan antolatzen ari gara EGIN BEHAR DUGU erakusketa, proposamenak aurkezteko xedez.

Erakusketak energia-trantsizio iraunkorraren inguruko gaiak lantzen ditu. Alderdi kontzeptualetik, elkarri lotutako edukiak hainbat ikuspuntutatik aztertzen dira, politika ekonomikoaren ereduen aurrean eta gaur egungo kontsumo-gizarteak ezarritako balioen aurrean jarrera kritikoa hartzetik abiatuta.

Formaren alderditik, jardun artistikoaren premisa aurreikus daitezkeen etorkizuneko egoeretako bat izatea proposatu da; kasu honetan, eskuragarri dagoen energia-kopurua oso murriztuta duen mundu bat izan da premisa. Helburua hau izan da: egiaztatzea eta erakustea (baita geure buruari ere) sormenezko kultura-ekoizpena posible dela, gaur egungo xahukerian parte hartu gabe, gutxienez, artearen esparruan.

Parte hartzen duten artistek ekologikoki jarduteko erronka onartu dute: erantzukizunez eta automugaketaz, ahal izan den guztietan energia-gastua murriztu egin dute: egunez lan eginez, elektrizitatea kontsumitzen duten lanabesen ordez eskuak baliatuz, aztarna ekologiko txikiagoa uzten duten prozedura tradizionaletara joz, material berrerabiliak edo tokian tokiko baliabideak erabiliz… Martxan jarri diren aukerak askotarikoak izan dira, pieza bakoitzaren teknika, formatu eta prozesuen araberakoak.

Horrela, bada, erakusketa-proposamenaren bitartez, egintza artistikoak jokaera-aztura berriak hartzearen premiaz kontzientziatzeko, sentsibilizatzeko eta komunikatzeko lanabes gisa duen adierazpen-ahalmenari buruz gogoetatzeko gonbita egin da. Horretarako, aitortu egin dugu ikus-arteetan, mezuaren eramaileak forma infinituak hartzen dituela eta ez duela zertan narratiboa izan, ez eta alegorikoa edo metaforikoa ere: ereduzkoa ere izan daiteke, alegia, koherentziaz jardutea.

Emaitza heterogeneoa da, ezinbestean, erakusketa kolektiboa da eta, baina proiektu guztiak bat datoz: ez dira ikusleen kontenplazioan oinarritutako esperientzia estetiko hutsean geratzen; ezagutza eta kontzientzia sortzen eta gizarte- eta ingurumen-larrialdiaren aurrean erantzunak aktibatzen laguntzen dute, edo hala espero dugu, behintzat.

**Carmen Marín Ruiz**

ARTEKOM proiektuaren koordinatzailea. Artea eta komunikazioa trantsizio energetikorako: komunikazio- eta sentsibilizazio-estrategiak Bizkaiko campusean.

## ARTISTAS / ARTISTAK

*Paola Álvarez*

*Antonio Achucarro*

*Mikel Arce*

*Iratxe E. Díaz*

*Mikel Garate*

*Raquel G. Santaolalla*

*Txemari Herrera*

*Susana Jodra*

*Jose Angel Lasa*

*Nerea Legarreta*

*Lucía Loren*

*Martin Mantxo*

*Leopoldo Ramírez*

*Josu Rekalde*

*Libe Ugalde*

*Gorka Vega*

*Viridian (Chiara Sgaramella*
*+ Estela de Frutos)*

# PAOLA ÁLVAREZ

*Universo modular / Unibertso modularra (2019)*

Medidas variables / Neurri aldakorrak
Escayola y loza / Igeltsua eta toska

La obra recoge una selección de piezas cerámicas fruto de la investigación y reflexión acerca del molde y sus posibilidades. Las piezas están realizadas a partir de fragmentos de distintos moldes que han sido desechados. Con este ejercicio de reciclarlos para después organizarlos entre ellos, se les concede la oportunidad de generar nuevas formas.

Por tanto, surgen del molde piezas de reducido tamaño, que muestran su fragilidad al ser cocidas a baja temperatura y su verdadera naturaleza, sin enmascarar bajo pigmentos ni distintos acabados. Sobre la superficie de las piezas se puede apreciar todavía la huella de la posición que han ocupado los distintos moldes.



Pieza talde hau ikerketa lan baten ondorioz sortu da. Pieza bakoitza egiteko, molde birziklatuak erabili dira eta, haien artean nahastu eta gero, hainbat aukera desberdin egitea lortu da.

Proiektu honetarako, ez da beharrezkoa izan itxura landuegiak egitea, beraz, materialak diren bezala erakusten dira eta pieza guztietan moldearen aztarnak nabari ditzakegu. Gainera, pieza bakoitza bere hauskortasuna nabarmentzen du tenperatura baxuan egosi direlako eta tamaina txikia dutelako.



## ANTONIO ACHUCARRO

*Mi bici Froncostin / Nire Froncostin bizikleta (2018)*

Bici de paseo XXL / Paseoko XXL bizikleta

*Mi bici Froncostin* es una bicicleta construida y reciclada a partir de los restos de otras tres bicicletas encontradas en la basura.




*Nire Froncostin bizikleta* zaraman aurkitutako eta birziklatutako beste hiru bizikletatik eraikitakoa da.

## MIKEL ARCE

### *Earth (2019)*

Plancha de acero oxidada de 1x1 m sobre 4 barras de acero de 1 m de altura, geófono + amplificador + transductor de baja frecuencia, agua / Herdoildutako 1x1 m-ko altzairu lama, 1 m-ko altzairu barrak, geofono+anplifikadorea+ maiztasun txikiko trasduktorea, ura.

Se trata de “transducir”, es decir cambiar de estado (reinterpretando), parte de la biosfera del entorno del lugar donde se instala la pieza, en este caso la tierra donde se asienta.

Mediante un sensor de la vibración terrestre o Geófono, sus señales obtenidas, son convertidas mediante un proceso analógico en ondas sonoras. Inmediatamente un sistema de transducción electrodinámica (altavoz transductor táctil o de contacto) hace vibrar una bandeja metálica tratada y con agua en su interior a la que se adhiere, sirviendo a modo de pantalla (visualizador y difusor sonoro) de la actividad terrestre próxima.

Si la percepción de los fenómenos geodinámicos son entendidos habitualmente como invisibles o inaudibles, en esta pieza, se ofrece una monitorización de la actividad geológica-terrestre para ser visualizada, escuchada o sentida, de una manera alternativa y en tiempo real.

Obra “transdukzioan” datza, hots, egoera aldatzean (berrinterpretatuz). Kasu honetan, pieza jartzen den tokiaren inguruneko biosferaren parte bat aldatzen da, kokatuta dagoen lurraren egoera bera.

Lurreko dardara neurtzen duen sentsore edo geofonoa erabiliz lortzen diren seinaleak, prozesu analogiko bat dela medio, soinu-uhin bilakatzen dira. Berehala transdukzio elektrodinamikozko sistemak (ukimenaren edo kontaktuzko bozgorailu transduktoreak) urez beteta dagoen metalezko erretilu tratatuan itsatsirik, barruan duen ura dardararazten du. Erretiluak lurraren hurbileko jarduerаren pantaila (soinu bisualizatzailea eta barreiatzaile) bezala jokatzen du.

Fenomeno geodinamikoak normalean ikusezin edo entzunezin bezala ulertzen badira ere, lan honetan beste modu batean eta denbora errealean, hau ikusteko, entzuteko edo sentitzeko aukera eskaintzen zaigu, lurraren jarduera geologikoa monitorizatuz.






## IRATXE E. DÍAZ

*Basic (Oinarrizkoa) (2019)*

60x60x80 cm
Material reutilizado / Berrerabilitako materiala




Etengabeko aldaketan dagoen munduan bizi gara, kontraesanez betea eta erritmo frenetikoekin. Zaila da egoera baten analisia egin eta iritzi kontrajarririk ez topatzea. Gizarte arduratsu baten nola izan beharko ginateke hausnartzerakoan kritikatzen dugun horretatik erabat aldentzea ezinezkoa zaigu. Horregatik, eta etorkizun jasangarria bermatuko duen bizimoduetarako trantsizioan pentsatzen, autokritika egiteko beharra ikusi nuen, deigarri egin zitzaidan kontraesan horietako bat azpimarratzeko. Pairatutako krisi ekonomikoaren ostean, non desparekotasunak nabarmendu diren, beharrezkoak ez ditugun produktuak oinarrizkotzat saltzen dizkigute. Azaleko gastu horrek askotan ez digu ikusten uzten zeintzuk diren oinarrizko beharrak.





Estamos viviendo en un mundo en cambio constante, de ritmos frenéticos e incontables contradicciones. Resulta difícil analizar una situación y no encontrar opiniones contrapuestas, y cuando reflexionamos sobre cómo debería ser una sociedad más responsable, es prácticamente imposible no caer en criticar aquello de lo que somos partícipes igualmente. Es por ello que, pensando en la necesidad de una transición hacia otros modos de vida que garanticen un futuro sostenible, consideré imprescindible partir de cierta autocrítica y señalar una de esas contradicciones que me llamó la atención hace un tiempo. Tras las consecuencias de una crisis económica donde las desigualdades económicas y sociales se han polarizado, se venden como básicos productos que no lo son y en los que gastamos más de lo que debemos, al servicio de una necesidad de consumir que nos impide, a menudo, darnos cuenta de qué es lo realmente imprescindible.

## MIKEL GARATE

*7.000 Walden (2019)*

200x122 cm
Acrílico sobre tela / Akrilikoa oihalean




Artelan hau Isate Proiektua deituriko lan bildumaren ale bat da. Proiektu artistikoak, alde batetik, sorkuntza artistikoaren garapena planteatzen du, naturarekin harremandutako lanak sortuz. Eta bestetik, ingurune degradatuen errekuperazioa planteatzen du, ekintza artistiko bezala ulertuta, beti ere errespetuzko begirada batetik, behaketa kontzientea helburu izanik, eta gizakiok Naturaren atal garela ulertuz.

Esta obra es una pieza de la colección denominada Proyecto Isate. Este proyecto artístico plantea, por una parte, el desarrollo de la creación artística, la creación de obra relacionada con la naturaleza, y por otra, la recuperación de entornos naturales degradados, entendido como acción artística, desde un punto de vista respetuoso, teniendo como objetivo la observación consciente y entendiendo que los seres humanos somos una parte de la Naturaleza.

Han servido como inspiración de este proyecto el trabajo literario titulado *Walden; or Life in the Woods,* del famoso escritor estadounidense del siglo XIX Henry David Thoreau, y también la acción artística y social del artista alemán Joseph Beuys, titulada *Plantación de 7.000 robles.*

En el cuadro *7.000 Walden* tenemos como protagonista a un arbolillo, un nogal, germinado y plantado por el mismo pintor. Junto a él tenemos otra serie de elementos, tanto narrativos como simbólicos. Por ejemplo, la imagen de Thoreau, o la reproducción de la cabaña que construyó él mismo para vivir en el bosque, el número 7.000, otros árboles y bosques, una pieza de ajedrez, una mano muy conocida, etc. Todos estos elementos están representados en un estilo muy especial y ecléctico, siendo el más notable el pop-art por el empleo de los colores vivos y la serigrafía, pero sin olvidarnos del naturalismo o del expresionismo.



Proiektu honen inspirazio iturri dira *Walden; or Life in the Woods* lan literarioa, XIX.mendeko Henry David Thoreau idazle ospetsuarena, eta baita ere *7.000 haritzen landaketa,* Joseph Beuys artista alemaniarraren arte ekintza soziala.

*7.000 Walden* koadroan, zuhaixka gazte bat dugu protagonista, intxaurrondo bat; margolariak berak, ale batetik ernetu eta landatutakoa. Honekin batera beste hainbat elementu ditugu, bai narratiboak, bai sinbolikoak. Esate baterako Thoreau beraren irudia, basoan bizitzerakoan eraiki zuen txabolaren erreprodukzioa, 7.000 zenbakia, beste hainbat zuhaitz eta baso, xakeko pieza, esku ezagun bat, etab. Elementu hauek denak estilo berezi eta eklektikoan daude errepresentatuak, pop-art joera dela nagusi kolore bizi eta serigrafiaren erabileragatik, baina naturalismoa edo espresionismoa ahaztu gabe.

## RAQUEL G. SANTAOLALLA

*Alternativa / Alternatiboa (2019)*

200x70 cm

Madera y retales reutilizados / Zura eta berrerabilitako oihalkiak



La segunda causa más grave de contaminación es la industria textil. Los tintes que componen la ropa que llevamos diariamente tiñen nuestros ríos causando un gran impacto medioambiental. Esto se suma a la gran explotación laboral que sufren los trabajadores que la fabrican, que además sufren la toxicidad de dichos tintes.

El *fastfashion*, o moda rápida es una de las principales causas de la masificación en esta industria, ya que sus prioridades son fabricar ropa menos duradera y de peor calidad, para poder ser sustituida al año siguiente por otra nueva. Con esta obra queremos apostar por alternativas como tintes naturales, el reciclaje y la reutilización de ropa antigua y los tintes naturales. La obra se ha realizado gracias a retales y tintes extraídos de flores, obtenidos con la ayuda del biólogo Abel Pérez, imitando la disposición de un telar.

Kutsaduraren bigarren iturburu nagusia ehungintza da. Egunero daramagun arropa osatzeko tindagaiek gure ibaiak ere tindatzen dituzte, ingurumen-inpaktu handia eraginez. Honi industria hauetan lan egiten duten langileen esplotazioa gehitu behar diogu, langile hauek ere tindagaien toxikotasuna pairatzen dute eta.

*Fastfashion*-a edo moda azkarra da industria honen masifikazioaren kausa nagusia; kalitate txikiagoko arropa suntsikorra ekoizten da, hurrengo urtean ordezka dadin. Lan honen bidez tindagai naturalen, birziklatzearen eta arropa zaharraren berrerabiltzearen alde egin nahi dugu. Lana oihalkiz eta loreetatik lortutako tindagaiz egin da, Abel Pérez biologoaren laguntzaz, ehungailu baten antzera.





## TXEMARI HERRERA

*Horizonte / Zerumuga (2019)*

130x30x174 cm
Madera, cerámica y posformado / Zura, keramika eta posformatua

En los años 60 la clase trabajadora accedió a una mirada de modernidad mediante la presencia masiva fundamentalmente en los muebles de las cocinas, de un material con resinas fenólicas de alta presión HPL, que se identificaba popularmente con una marca.

La creación de esta ficción de uso fue, simulando la imagen de la madera. Con la clara idea de conexión hacia la cultura pop. Incluso en la publicidad de la época utilizaba un acercamiento estético a la citada visión.

